

Poesia – Filosofia – Bizimodua¹

Poetry – Philosophy – Way of Life

JOSU LANDA GOYOGANA*

Filosofia Saila (UNAM)

Amelia Pérez Condek gaztelaniatik itzulia.

LABURPENEA. Testu honetan premisa-saio batetik abiatuko naiz: poesia eta filosofia dira lorpenik handiena gizakiak zentzuz existitzeko duen ahaleaginean. “Poesia” hitza bere esanahi zabalean harturik, grezierazko *poiesis* gisa, artelanak funtzio estetiko jakin batekin konprometitutako obrak dira. Funtzio estetiko horrek zentzua sortzeko modu edo aukera espezifikoak dakar berekin: “zentzu poetiko” gisa bereiz daitezkeen zerbait. Horren ondoren, logos filosofiakoaren eta zentzuaren arteko harremana dago, zeinaren konfigurazioan *poiesis*ak funtzio erabakigarria betetzen baitu. Hori dela eta, filosofiaren egikaritze gorena esperientzia noetikoan datzalakoan nago. Esandakoa gogoz eta jardunez argi izateak bizimodu berezia eragiten du.

GAKO-HITZAK: egia; existentzia; gizakia; hitza; jakituria; zentzua.

ABSTRACT. In this text I will start from the following statement: poetry and philosophy are the greatest achievement in the attempt of the human being to exist meaningfully. Taking the word “poetry” in its broad meaning, as in the Greek *poiesis*, works of art are works committed to a certain aesthetic function. This aesthetic function implies a specific way or possibility of producing meaning: something that can be distinguished as “poetic sense”. Next to this is the relationship between philosophical logos and meaning, in whose configuration *poiesis* plays a decisive role. For this reason, I believe that the supreme realization of philosophy consists in the noetic experience. Taking into account and putting into practice all that has been previously said leads to a unique way of life.

KEYWORDS: existence; human being; meaning; truth; wisdom; word.

¹ Jatorrizko testua “Poesía – Filosofía – Forma de Vida” da, *Filosofía Garaikidearen I. Kongresuan* aurkeztutako ponentzia, XXI. mendeko kontzeptuak eta paradigmak. *Fenomenologia, Teoria Kritikoa eta Hermeneutika* topaketen baitan (La Salle Unibertsitatea, Mexiko Hiria, 2023ko iraila). 2023ko abenduaren 28an *Separata* aldizkarian argitaratua; hemen eskuragarri: <https://poesia.uc.edu.ve/poesia-filosofia-forma-de-vida> Aurreko testu batean du oinarri: “Sentido y redención (Atisbos)” izeneko, *Reflexiones Marginales* aldizkarian argitaratua (75. zk., Mexiko, UNAM, 2023ko maiatzaren 29a); hemen eskuragarri: <https://reflexionesmarginales.com/blog/2023/05/29/sentido-y-redencion-atisbos>

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Josu Landa Goyogana. Filosofia Saila, Filosofia eta Letren Fakultatea, UNAM, 04510 Coyoacán (Mexiko) – [josulanda@filos.unam.mx](mailto:joslulanda@filos.unam.mx)

Nola aipatu / How to cite: Landa Goyogana, Josu (2026). “Poesia – Filosofia – Bizimodua”, *Gogoia*, 26, 121-126. (<https://doi.org/10.1387/gogoia.28386>).

Jasoa: 2026-02-24. Onartua: 2026-04-13. Aurrena online argitaratua: 2026-04-20.

ISSN 1577-9424 - eISSN 2444-3573 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoaren* lizentziapean dago

Nire lagun eta lankide Pavel Verazari,
adeitasunez eta esker onez.

1. Premisa-saio batetik abiatuko naiz: poesia eta filosofia dira lorpenik handiena gizakiak zentzuz existitzeko duen ahaleginean.

2. “Poesia” hitza bere esanahi zabalean ulertzen dut, grezierazko *poiesis* gisa: artelanak sortzera bideratutako giza ekintzaren modu gisa; hau da, funtzio estetiko jakin batekin konprometitutako obrak, ez bakarrik izaera literariokoak.

Funtzio estetiko horrek zentzua sortzeko modu edo aukera espezifikoak dakar berekin: “zentzu poetiko” gisa ezaugarritu daitekeen zerbait.

Zentzu poetikoaren nozioak gertatzen dena interpretatzeko bide bat eskatzen du. Poesia, beraz, aurkezten denaren interpretazio modu bat da, alegia, gertatzen denari —berez, hutsala— zentzua esleitzeko modu bat, eta, aldi berean, mundua gizatiartzeko modu bat ere badakar.

Zentzua sortzeko ahalmen hori, mundua gizatiartzeko jarrera espontaneo hori, egiaztapen honetan laburbiltzen da: gizakiak ezin gara bizi klabe poetikoan ez bada. Beraz, azken batean, munduaren gure irudikapen-interpretazioa prosopoia eta metafora amaigabea da.

3. Filosofiaren definizio bat finkatzea proposatzen dut, honako alderdi hauek kontuan hartuko dituenak: (a) milaka urteko logos bat; diskurtso bat —arrazoimena, pentsamendua, hitza— munduaren irudikapena-interpretazioa teoriaren mailan zentzuz artikulatzen duena eta giza ekintza munduan zentzuz jantzen duena —jakinduria praktikoa—, (b) jakintza eta jakinduria hori posible egiten duten prozeduren erregistro bat, (c) existentzia modu poetiko-teoriko bat, horrenbestez “mundua poetizatze” eta pentsatzeko lan sistematikoarekin konprometitua —*pentsatu* aditzak zera esan nahi du, zentzua bilatzeko borondate menderaezin batek bultzatuta arrazoimena erabiltzea (jarrera horretan sar daiteke egia bilatzeko borondate gizatiarregia)—, (d) autonomia pertsonala konpromiso komunitarioarekin orekatzen duen bizi-modua, (e) kontsolamendu emozionalerako bidea, (f) *eudaimoniaren* bidea: gogo-aldarte iraunkorra, “zorion” hitzak gaizki adierazia, eta (g) erredentzio existentzialerako bidea: filosofiaren zentzuaren adierazpen gorenak.

Logosaren eta hizkuntza teorikoaren alderdiari dagokionez, tradizio filosofikoa interpretazio-arrazoien —betiere probatzen eta etengabe berrasmatzen ari direnak— sail gisa eratzen da, eta horiek mundu honetan giza bizitzak eta presentziak dituzten dimentsio ontologiko, epistemologiko, antropologiko, etiko, politiko, poetiko eta pedagogikoaren berri ematen saiatzen dira. Hizkuntza-ondare horrek ez du izaera poetikorik, ez baitu funtzio estetikorik helburutzat, nahiz eta sormen poetikotik —*poiesisetik*— banaezina den. Soilik

“barne”-elkarrizketa gogoetatsu zorrotzak eta elkarrizketa dialektikoak argitu dezaketen gisan, *poiesisa* eta *noesis*a prozesu banaezinak dira.

Horrek logos filosofikoaren eta zentzuaren arteko harreman berezia eskatzen du, zeinaren konfigurazioan *poiesisa*k funtzio erabakigarria betetzen baitu. Beraz, “zentzu logikoaz” hitz egin liteke —hau da, logosari buruzkoa—, “zentzu poetikoaren” albokoaz. Puntu horretan, onartzen dut zentzu logikoaren egikaritze gorena esperientzia noetikoan datzala: arima “dialektizatuaren” —barka, adjektibo ausartegi honengatik— kontenplazio bateratzailea, errealtatearekin kontziliatzailea.

Esperientzia noetikoak esan nahi du hizkuntzaren funtzio esanguratsua gainditzea, zentzu-bokazioa duena —hori ere, azken batean, prosopopeia eta metafora da; hau da, *poiesisa*—, azkenean adierazezina den neurrian. Ondorioz, azken buruan gizakiok oro har klabe poetikoan bizi garen arren, diskurtso teorikoa, erretorika filosofikoa, hizkuntza beti poetikoaren aldakuntzatzat har liteke, bere burua halakotzat ukatzen duen aldakuntzatzat, egia noetikorako duen bokazioagatik. Horrek ahalbidetzen du ohartzea, azken finean, giza existentzia zentzuduna aipaturiko bi gako hauetan oinarritzen dela: poetikan eta filosofian.

4. Bestalde, “zentzuaren” nozioak korrespondentzia-sistema jakin bati egiten dio erreferentzia, eta sistema horren baitan egoki bihurtzen dira irudikapenak-interpretazioak, prozedura praktiko-poetikoak, itxaropenak, erabakiak eta askotariko ekintzak; azken batean, giza praxia eta *poiesisa* nahita eragiten duten eta/edo haien fruituak justifikatzen dituzten gauzen eremu zabal eta konplexua. Zerbaiten zentzuak zerbait horren “izateko arrazoiaren” jarraibidea ematen du.

Azken batean, *poiesisa*k (a) giza existentzia zentzudunaren erreferentzia metaforikoak eta, oro har, estetikoak sortzen ditu, eta, horrela, (b) zentzuaren ordena ezartzen du. Horrela funtzionatzen dute onak, ederrak eta egiazkoak gizakiak berez existitzeko duen joeraren muga eta koordinatu gisa: gizakiaren “bere baitatik irtete” etengabea, mundu poetizatu batekin —hau da, behar bezala “sinbolizatutako” munduarekin—² bat etortzeko eta bertan existentzialki gauzatzeko.

Zentzuaren ordena hori beharrezkotasun-printzipioaren modu espezi-fiko batek arautzen dituen zehaztapenen multzo baten moduan egituratzen da —zeinaren arabera ulertzen baita gertakari oro “kausazko” aurrekari baten ondorioa dela—. Printzipio hori, funtsean, azken kausalitateen araberako

² “Sinbolizatzea”k hemen hau esan nahi du soilik: (1) giza existentziaren habitat normalari zentzua emateko eta egozteko prozesu poetiko-teorikoak, eta (2) prozesu horien emaitzak: hizkuntza-figurak, era guztietako arte-adierazpenak... “Zentzutzea” bezalako zerbait litzateke? Eta nor ausartuko litzateke kakofonia hori egiten?

kausalitate efizienteen betetze gisa adierazten da, zeinak joera gisa jarduten baitute, gertatzen denaren azken gauzatzeak seinalatzen duen “noranzkoa” bezala. Tonu klasikoagoan esateko, “zentzuaz” hitz egiten dugu “zergatia” duten gertaerek “zertarako” batean gehiegizko justifikazioa hartzen dutenean. Zentzuaren dimentsio teleologiko erabakigarri hori ez da kokatzen errealitate naturalaren mailan, ezta giza jarduera instrumental edo pragmatikoaren mailan ere, baizik eta errealitate etikoaren eta soteriologikoaren mailan; hau da, ez da arduratzen mailu batek zertarako balio duen edo eguzkiargiaren bidez lurrazala argiztatzearen eguneroko fenomeno argitzeaz, baizik eta sufrimenduaren, aukeramen askearen, giza existentziaren eta antzeko beste errealitate batzuen azken arrazoiaren azterketaz.

Arlo pertsonalean, zentzuaren ikuskera poetizista eta immanentista baten alde egiten dut. Lurra nahikoa da *poiesis*ak zentzuaren beharrezko erreferentziak ezartzeko eta, horrela, gertatzen denaren eta gertatzen zaigunaren izateko arrazoa aurkitu ahal izateko. Ez dut harago joan beharrik; ez da behar munduz haraindiko eta gizakiz gaindiko erreferenterik, zentzuaren ordenan finkatu eta bizitzeko.

Beharbada, zentzuaren ideia horren oinarrian *oikeiosis*aren doktrina es-toikoa datza: Lurrarekiko edo munduarekiko kidetasun baterako joera animikoa, poetikoki eratzen dugun eta geure egiten dugun “etxe” bezala ikusita. Ontologikoki antzekoa zaigunaz jabetzeko kontzientzia-sentimendu horrek identifikazio bat, desalienazio bat dakar berekin, halako moldez non pentsatzen dugun guztiak —bai ikuspegi poetikoan, bai filosofikoan— egokia izan behar baitu mundu objektiboari eta *ethos*aren eremuei dagokienez. Horrek, agian, bete egin lezake sustrai pitagorikodun intuizioa; hau da, antzekoak antzekoa lortu eta antzematen duela dioena (*similia similibus percipiuntur*).

5. Helburu jakinik gabeko bizitzak ez du zentzurik. Gure irudikapenek interpretazioek —bai poesiaren arloan, bai arlo teorikoan— eta gure ekintzek justifikazioa behar dute, eta hori, hain zuzen, erakusten duten helburua da. Zentzuaren ideia poetizista-immanentista defendatzen dudanez gero, justifikazio teleologiko horrek ez du zertan transzendentea izan, ez du zertan mundutar eta gizatiarretik haragoko xede edo helburu sorta gisa jardun. Gai honi buruz dudak ikusmoldearen arabera, kontua ez da poeta-filosofook, zentzuz bizitzeko, lurretik kanpoko erreferentzietarantz joan behar dugula existentzialki, baizik eta, une oro, gure existentzien hasieratik eta heriotzaren eraginez horiek amaitzen diren arte, zentzuaren ordena sortu eta berritu egiten dugula, eta ordena horretan bizi garela. Horretaz jabetzea eta besteen, jende arruntaren, kontzientzian proiektatzea helburua da dagoeneko, gure bizitzak betetasunez hornitu, hutsaltasunetik atera, zentzuz bete eta justifikatzen dituen. Zertarako “erori” gara mundu honetan? Esnatzeko eta zentzuaren argi beti berrituan mantentzeko eta gure kideak esperientzia bera bizitzera bultzatzeko, esperientzia hori onartzeko edo ez onartzeko duten as-

katasun ukaezina alde batera utzita. Zentzua poetiko-teorikoki ez da gizaki bakartien lana, baizik eta “jendearena” —denok garen poeta-pentsalariena, egia esan—, koexistentzia dinamikoan. Horren adierarik konplexu eta gartuenean, zentzua sen on da.

6. Gure zentzu-borondatea —beti poetikoa, hau da, sortzailea— aktibatzeak, zentzuz bizitzeak, gure bizitzak helburu existentzial jakin baten arabera bideratzeak, justifikazio baten kontsolamendua, duintasunaren eta estimu goreneko beste balio etiko-espiritual batzuen asmo betikoa gauzatu izanaren gozamina dakar. “Kontsolamendu” hitzak dituen esanahien artean *gozamenarenari* edo *pozarenari* erreparatzen diot. Ez dut bizitza poetiko-filosofikoa ulertzen, horrelako fruitu motarik ez badit ematen: bozkario diskretu baina sendoaren sentimendua, existitze hutsaren neke saihetsezinak eta zehaztaperen ez beti atseginak konpentsatzen dituen —gabeziak, erasoak, frustrazioak, ukazioak... beti gure habitat existentzialean azaleratzeko bidean eta beti zentzua desagituratzeko prest—.

Horretan, ez nator bat Schopenhauerren eta Nietzscheren tesiekin, izaera aszetiko eta estetiko ustezko konpentsazio “metafisikoen” inguruan, giza klabeen bizitzeko lan zailari begira. Schopenhauerrek berak ohartarazten du jenioaren —hau da, artistaren prototipoaren— paradoxaz: borondatearen determinazioak gaingritzeko gai izatea, horrek etekin eudemonologikorik ekarri gabe. Ikuspegi horrek, dirudienez, ezeztatu egiten du, *avant la lettre*, munduaren justifikazio estetikoaren intuizio nietzschear eztabaida ezina, *Tragediaren jaiotza* liburuan agertzen dena. Ezin da ukatu horrelako doktrinen eraginkortasun tonikoa, gizaki izate hutsak dakartzan atsekabe eta oinazei begira. Baina kontsolamenduaren aukera ere aitortu behar da bizitzeko poz gisa, eta ez *phármakon* gisa, eremu existentzial batean, non onaren, ederraren eta egiazkoaren esperientziak arimaren prezioan ordaintzen diren —Heraklitoren modura esateko—. Hala ere, nahiz eta aldarte-kostu hori oso handia izan, ez du ezereztan poesiaren eta filosofiaren tartean egoteak ematen duen kontsolamendu bikoitza —estetikoa eta teorikoa—, zeinak zentzuaren iturri eta ahalbidetzat hartuak baitira —hala erreala denaren humanizazio erradikalarena, nola gizatasunaren erroto errealizazioarena—, eta baita, beraz, bizitasun eta betetasun pertsonal eta kolektiboaren iturri eta ahalbidetzat ere.

7. Bizitza poetiko-filosofikoan inplikaturako kontsolamendu pozgarriak dimentsio soteriologikoa dakar berekin. Zentzuaren ordena inposatzeko giza ahalmen poetiko eta teorikoan parte hartzea, hain zuzen, bidegabekeriaren, zentzugabekeriaren, absurdoaren... zantzuak gaingitzea da, zeren halakoek gure izatea eta munduan egotea *prima facie*, azalean, estaltzen baitute. Salbamenerako goratze hori erredentzio modua da.

“Erredentzio” hitzaren adieren artean, “erremedioa, baliabidea, babeslekua” lortzea dakarrena azpimarratu nahi dut: aipaturako kontsolamenduegoeraren antzeko lorpena da, bizitza mundutarra kentzetik dibergentea,

Lurraz haraindiko paradisu baten mesedetan edo habitat bati uko egiteko irrikaren ondorioz, zeren eskuarki habitat hori aldebakartasunez, modu murritzailan, areriotzat hatzen baita, kosifikaturik, ustez eta eragozpen zehar-kaezin batek eta alteritate gaindiezin batek ezaugarritzen dutela.

Nire ikuspuntutik, erredentzio poetiko-filosofikoa aldi berean *poiesis*ak eta *noesis*ak eragindako existentziaren esanahiak eta justifikazioak ematen du. Efektu hori berezko mundutasunaren aurrean desengainu bihurtzen da, geuk eratzten eta ezartzen baitugu zentzuaren ordena gisa, eta geuk bizi baitugu existentziaren salbazio eta izateko arrazoi gisa. Beraz, lorpen gizatiarra da, eta elkarri lotutako bi alderditan banatzen da: estetikan eta teorian: giza ekintzaren bi fluxuak, izateko arrazoia duten obrak dakartzatenak, eta, horrekin batera, zentzuaren ordenaren oinarriak eta frogak.

Erredentzio poetiko-filosofiko horrek —ez du inolako salbaziozko ekonomia erlijiosorekin bat egiten, eta ez du ezinbestean ekonomia horren beharrik— izaera pertsonala eta komunitarioa du. Erredentzioak berak zentzua hartzen du plano indibidualetik kolektibora, eta alderantziz, proiektatzen denean. Horrexek ahalbidetzen du agindu sokratiko-platoniko kategoriko hau bereganatzea: noizbait bere baitan nagusi ziren kateetatik eta faltsukeriatik askatzea lortu duena haitzulora itzultzea. Baina filosofo-poetak bete-behar hori betetzea ez da beti onartua edo ondo hartua izaten haren inguru komunitarioan. *Errepublikaren* VII. liburuan bertan, non Platonek Haitzuloko Alegoriaren berri ematen baitu, aurreikusten da iluntasunean bizi diren konformistek uko egin diezaioketela definizioz emantzipatuta dauden filosofoek eskaintzen duten erredentzioari. Bere bizitza poesia-filosofiari, bere zentzu-borondatearen arabera izateari, lotzen dionak ez du etsi behar gizarteak haren lana hartzeko moduaren aurrean, nahiz eta hori izan bere praxi filosofikoaren patua. Aitzitik, bere bokazioa berretsi beharko du, eta erredentzio-promesa orok pizten duen kemenaz onartu.